

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ixabel Olano Segurola

*Beasain, Gipuzkoa
(1925-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Aranezarra baserrian jaiotakoa. Aitona Lazkaoko zen eta amona Itsasondoko; aita, berriz, Lazkaon jaio zen, eta ama Azpeitiko auzo batean. Baserria herrigunean bertan zegoen eta, horren ondorioz, kaleko giroa eta bizimodua ere bertatik bertara ezagutu zituen. Ixabelek irakasle izateko ikasi zuen eta Beasaingo ikastolaren bultzatzaile eta sortzaileetako bat izan zen. Oso hitzun interesgarria, hainbat gairen inguruan jardun zuen: baserriko lanak, ohitura zaharrak, gerra osteko urteak, hizkuntzaren egoera Beasainen, ikastolaren hastapenak eta abar.

Zintak

BEA-023

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-10-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-024

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-10-13
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** MiniDV

BEA-065

- **Proiektua:** Goierri Telebista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Telebista, Goierri
- **Data:**
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Telebista, Goierri

Pasarteak

1. Usurbe mendiko basoak; perretxikoak

- **Erref:** BEA-023/001

- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Basoak: pagadiak, gaztainadiak, hariztiak, etab. Garoa eta orbela ere bertan batzen zituzten. Perretxikoak. Usurbe mendian basoak zeuden eta makurtuz gero ondoak ikusten ziren.

Transkripzioa

- ... hemen inguru guzti honetan, hemen bertan, perretxikoak egoten zirela, ez?
- Karmelo: Hemen´e guk´e baso batzuk genduzken —oain´e zea dao... eskonbrera eo esan dizuana— eta hor zeren pagarik...
- Ixabel: Gaztiñarik...
- K: ... gaztiñarik. Eta garoa, urteroko garoa, han biltzen gendun.
- I: Eta orbela´re bai.
- K: Orbela. Ta han [...] perretxikok baiño bu!
- Bai, e?
- K: Ta geo hemen Usurbeko azpin beste garari haundi bat bazan ta hor´e atetzen zien makurtu eta garo arten ikusten ziñuzten ontok.

2. Ume jaioberriari "bisita" eramaten zitzaion

- **Erref:** BEA-023/002
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Ohitura zaharrak. Ume jaioberri bat zegoenean familian, "bisita" eramaten zitzaion. Ardo goxoa, azukrea, etab. eramaten zitzaizkion amari. Perretxikoak batzeko zaletasun handia. "Txerri puxkak". Odolkiak eta morzilak.

Transkripzioa

- I: Ni gogoratzen naiz Santiago garaie zan eta Etxeberritan, Garingo Etxeberritan jaio zan Santi. Eta gure etxetik jarraitzen gendun bixitakin. Osea... Ez dakit zuk ezautu dezun. Norbait jaiotzen zanen eta familiartekoa eo baldin bazan, tartekoa baldin bazan, bixita eamaten zitzaion. Edo ardo goxo boteillea edo azukre ta txokolatea edo kafea... Eta Garin da Beasaingo auzo bat. Ordun, oiñez hemendik Usurbetik bueltan, aillatzen giñen zeara [Etxeberrieta] zon izena baserrik. Eta amakin. Eta izango zan, ba, uztaillen bukaera edo abuztun hasiera. Eta bagiñoatzen ya Usurbei... aldamenetik hartzen zan, han itturritxo bat, eta pagarie. Osea, biden gaikaldeen pagarie. Eta amak esan zian: "Hara, beida, beida, beida! Beida zan! Beida zan!" eta zeak, ontto baiño illarea orbel eta garo azpin ikusten zien. Baiño soldau txikik balie bezelaxe danak, danak zea. Io zan gue ama

—zeati sasoi bat bazeuken ordun!—, io zan, zean, maldan gora, soiñekoa eantzi zon, azpikogonea hartu zon, azpikogonan sartu zittun mordoa — baiño kantidadea, e? Danak berdin-berdin-berdiñek, berri-berrik— eta pago-ipurdi baten gorde zon eta bueltakon hartu giñutzen ta etxea. Baiño hemen perretxiku...

- K: Asko.

- I: Zaletasun haundie izan da. Eta ni gogoratzen nauk zea... hik esaten dek, ba, nola garoa ebaitzea jun zien gizonezko hoik... Baiño lehenao nola ibili ziñeten zuek zea biltzen... Zakukara perretxikue etxea ekarri ta ordun nola ez zeon ez neberaik eta ez zeon konserbatzeik, ba, banatu etxeko zean batzun arten ...

- K: Bizilagunei.

- I: Bizilagunei eta izeba Batistai ta hoiri.

- K: Txerrin zea erregalok bezela. Nola izaten zan, ba?

- I: Bai.

- Bai, bai, bai.

- K: Baiño txerriña nola esaten zan, ba? Txerrie hildakon...

- I: Txerri-puskak.

- K: A! Puskak.

- I: Txerri-puskak, bai.

- K: Izaten zien, ba, izeba ta hola...

- I: Bai, aurrena apaizei.

- K: Bai.

- I: Aurrena apaizei eta puskaik onenak, gaiñea, apaizei, e?

- K: Puskea...

- I: Bai. Geo ama neskame eon zan señoari.

- K: Odolkik, odolkik...

- I: Odolkik, murtzillek... zeatik bi eratakok izaten hittuan.

- K: Bai.

- I: Heste mehekin einda eta heste lodi-lodikin einda. Eta bat zan odolkie eta bestea zan murtzille.

- A... ta ze desberdintasun edo...?

- I: Ba, hestea. Masea berdin-berdiñe zan.

- Bata fiñagoa ta bestea...

- I: Ez, ez, ez, zea zan, hestea zan, bat fiñe eta bestea heste lodie.

- Bai, baiña jat...

- I: Ipurteste zabal-zabal hori.

- Baiña jateko orduan...

- I: Jateko igual-igualak zien. Heste lodi horrenak izaten zon azala lodigoa, baiño ondo egosita ona gelditzen zan.

- K: Buo! Ikusgarri goxok!

- I: Bueno, ba, banatu perretxiku hoik eta, hala ere, gogoratzen nauk, simaur pilla gaiñen ontai-ta kentzen zaion menosa...

- K: Ezkoa.

- I: Hori da. Baiño simaur-pilla gaiñen pillea, e?

- Eta zelan esan diozu, onttoi kentzen zaien...?

- K: Azpin eukitzen do. Erderaz [tubos] o hola esaten zaie, zea batzuk...

- Eta euskeraz zelan esan duzue?

- K: Ezkoa.

- I: Ezkoa.

- Ezkoa... Ta zer da?

- K: Hori jartzen da zahartuta...

- Bai, pixkat berdeska...

- I: Ezkamea´re... ezkamea´re esan izandu zaio. Osea, azpin ontok izaten dittu bi kapa bezela. Eta berrie danen gaikaldea ta azpikaldea dana jaten da. Baiño pasauta daonen, kendu itten zaio ezko hue.

- Bai, pixkat berdeska...
- I: Hori da, hori da. Ba, hondakin horrekin...
- Hori da ezkoa...?
- I: Bai.
- Ezkamea...
- I: Ezkamea ´re bai.
- K: Ezkama izango da erderaz.
- Beira... Orduan, txerri-puskak, orduan, bizilagunen eta arten...
- K: Gero, gero gibelurdiñek eta ziza-horik eta...

3. Inguruetakoko perretxiko-klaseak

- **Erref:** BEA-023/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Perretxiko ugarietakoko inguruan: gibelurdiñak, ziza-horik, onddoak, "apaiz perretxikuek", San Juan berdeak, kuletoa (gorringoa). Gaztainadiak asko urritu dira azkenaldian. Toponimia.

Transkripzioa

- Gitxi gorabehera zeintzuk izaten ziren hemen perretxiko ugarietakoko edo...?
- K: Gehiena guk jaten giñuztenak hoik: onttok, gibelurdiñek, ziza-horik eta gero apaiz-perretxikuek eta esaten ziren, baiño hoik ya...
- I: Eta San Juan berdek.
- K: ... bigarren maillakook eo hirugarrengok. Osea...
- A, bai? Besterik ez zeuanian orduan...
- I: Baiño gure etxetan ez ziren hoik jaten.
- K: Ez, ez.
- Eta zeintzuk ziren hoiek?
- K: Ba, apaiz-perretxikuek ziren horiek, baiño hanka txurikin.
- I: Baiño miñe... osea...
- K: Gero oso gutxi jaten ziren baiño oso goxoa zela...
- I: Kuletoa.
- B: Kuletoa, baiño euskeraz beste... arrautzak esaten giñon..
- I: Goringoa ´re bai.
- A, bai, Eibar aldean ere horrela esaten zaio. Bai.
- K: Haik ´e gaztiñarin ta, hola, leku jakin batzutan urtero juten giñan, baiña urtero ez ziren ateatzen.
- Baiño hori eskaxa da, ez? Edo oso urria...
- I: Eske gaztiñadik ´e urritu ein die, ya ez dao gaztiñaririk. Ni gogoratzen naiz, orain dala zenbat urte izango die? Hogeita bat edo hogeita bosten bat urte bai. Eta ordun hasi ziren jendea Naparro aldea juten perretxikuek.
- Orduan ya, e?
- I: Eta nere senarra, Joxe, Etxarri aldea. Eta urtetan kuletoik ikusi be. Eta sailtxoa: hoeta bosten bat, hoeta hamarren bat. Baiño...
- K: Hori asko da...
- I: Eta, bueno, in emen ziren baiño inpresio bat...! Eta beak esaten ziren: "Momentu hartan bost milla duro agindu balizkie ez nittun emango. Ez

nittun emango!". Ein zion ilusioa! Zeatik hemen gure zea hortan, Aierdin, nahikoa izaten huan, e?
- K: Baiño hoik... leku bat oso ona zeonan han [gure] beheko baso aldea, [Isasti]... nola den? [Basoko etxeko] paren errekez [Gantzarain] aldea, han zeonan leku bat urtero-urtero atatzten ziena. Ta...
- I: Kuletok...
- K: Bai. Guk gaztiñan billa juten giñenen, beti sartzen giñuztenan. Eta batzutan, klaro, ez den, urtero ez den etortzen, baiño goxoa ikaragarrikoa hori.

4. Amonak perretxikotarako zaletasuna

- **Erref:** BEA-023/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Garai batean etxean ziza-horiak bakarrik jaten zituzten. Besteez ez ziren fidatzen. Amona oso perretxikozalea zen; aitonak, berriz, arrantzarako zaletasuna zuen.

5. Errekara arrantzan

- **Erref:** BEA-023/005
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

"Barkazioak" (oporrak). Errekara arrantzan.

6. Gurasoen jatorria; amonaren inguruko kontuak

- **Erref:** BEA-023/006
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aranezarra baserrian jaiotakoak. Aitona Lazkaokoa; amona Itsasondokoa. Aita Lazkaon jaiotakoa eta ama Azpeitiko auzo batekoa. Amona langile amorratua zen; oso sukaldari ona. Amonaren inguruko pasadizoak. Umezain Ordiziara etorri zen eta etxe on batean lanean jardun zuen urte askoan.</p>

7. Amonak egindako lanak: apretak josi, koltxoiak garbitu...

- **Erref:** BEA-023/007
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Amonaren inguruko kontuak. Umetako kontuak; 9 urterekin umezain joandakoa. "Apretak josten" lan egiten zuen. Langile amorratua. Koltxoiak nola garbitzen zituen. Beasainen koltxoiak garbitzen zituzten bi emakume zeuden.

8. Sakristauaren eta seroraren egitekoak

- **Erref:** BEA-023/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua erabat aldatu da. Eskolatik arratsaldean atera eta txerria ateratzen zuen. Aita sakristaua zen eta Carmelo akolito bezala egon zen urte askoan. Goizetan, meza laguntzera joan behar izaten zen. Hilarriak elizan. Seroraren lana zein izaten zen.

Transkripzioa

- I: Eske bizimodue, erabat, erabat aldatu da.
- Zeuek ere igartzen duzue hori? Ze zuek nahiko gazteak zarete...
- I: Bueno! Ni akordatzen naiz, ni umea nitzela, eskolaa. Zeatik gue etxen lana eongo zan etxen, baiño aurrena eskolaa jun behar zan. Eskolatik atera eta, ni ya hamar urtekin hasiko nitzen, txerrie zaintzen non. Osea, eskolatik atsaldean atera, txerria ateratzen non. Buelatxo batzuk ematen nizekion, txerriteian sartzen non eta solfeoa juten nitzen, beste klase batea. Ta, klaro, nola dana bertan genduken... Hori´re... horrek´e zea, badu bentaja, zeatik urrutiko baserri baten egon bagiñe, ba, ez. Baiño...
- Bai, bertan kale...
- K: Ta gu´re berdín. Zea, pixkat gogortu giñenen beti bazan nobenea o zeozer ta... akolito.
- I: Zeatik gure aitte sakristaue zan. Gure aitte...
- Eta zeu akolitto?
- K: Akolito urte askon. Eta nobenea baldin bazan, bea igual soroa jun behar aittek eta esaten zin: "Jun hai ta piztu itzek halako argik" ta hala. Ta goizen meza launtzea. Goiz. Aurreneko mezea tokatzen [bazitzaizun], ba, bostetan arriba!
- I: Bai, baiño bostetan aittek laguntzen zian.
- K: Bai, batzutan.

- I: Bai, gehien... baiño gehienen.
 - Aurreneko meza noiz izaten zen, ba?
 - I: Azkenengoa?
 - Ez, lehenengoa.
 - K: Bosteterditan.
 - I: Bost eta erditan.
 - Goizeko bost eta erditan?
 - I: Bai.
 - Eta nor joaten zen hor...?
 - I: Ba, sakristaue atek iriki eta matutie jotzea.
 - Baiña batenbat joaten zen...?
 - K: Bai, bai, baserritarrak eta...
 - I: Hoixe! Bai, bai.
 - Baserritarrak?
 - I: Bai, bai. Azkenengoa zortziterditan, eta zortziterditan piztu behar zien, zuk ezagutu dittuzu argizariolak?
 - E... Bueno, ez, gerora.
 - I: Gero...
 - Ezautu dittut baiña ez...
 - I: Ba, etxe bakoitzek —klaro, kaleko etxek ez zuten, baiño baserri bakoitzek— zeuken sepultura deitzen zitzaion tartea elizan. Etxe bakoitzek zeukan bere zenbakikin. Ordun...
 - Zenbakikin?
 - I: Zenbakikin. Ordun, han, urten hildakoa zeukenak trapu beltz bat eta argizariolak beren argizarikin. Ordun, zortziterditako mezatan egunero-egunero nik pizten nittun. Nik edo etxetik juten zanak, baiño hori emakumen lana izaten zan, gizonezko ez. Osea, seroran lana: argizari hoiek danak piztu, mezan hasieraa kanpaia jo, meza erdikon kanpaia jo eta bukatzen zanen meza argizari haik itzaldu eta eskolaa.
 - K: Bai, eta geo eguardin´e kanpaia jo.
 - I: Egurdin hamabitan kanpaia.
 - K: Eta gauen´e bai.
 - I: Arratsalden...

9. Umetako ibilerak

- **Erref:** BEA-023/009
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

Umetako ibilerak. Eskolan CAF-eko injeniarrien alabak. Orduko kontuak.

10. Umetako kontuak; eskolako materiala

- **Erref:** BEA-023/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Umetako kontuak. Eskolan, fraideetan erabiltzen zituzten paper eta blokak.

11. Errazionamenduko ogia txerriek ere ez zuten jaten

- **Erref:** BEA-023/011
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamenduko ogia. Ama talogile bikaina zen. Oremahaia. Errazionamenduko ogia txerrien askan botatzen zutenean, txerriak ez zituen jan ere egiten.</p>

Transkripzioa

- K: Halamoduzkoa izaten zan ogie razionamentukoa.
- I: Puff!
- Bai?
- K: Ze sartzen ote zioen?
- I: Bueno, gure amak beste gauzaz gain talogillea zan aparta, baiño ein zittun, ein zittun talok bee bizi guztikok. Goizen hamahiru laun etxen; gizonezko: aitte, hok bost, sei eta morroi bi, jenealen, eo morroi bat eta apupillo bat. Ordun, gizonezko hoiri danak, danairi eman behar zitzaien jaten.
- K: Hirurogei talo baiño gehio igual.
- I: Esango diat, esango diat. Ba, gue ama jeikitzen zan zazpietako edo lehentxeo. Bezperan ya guk uzten genion pasata iriñe. Ore-mahie zeon ikuillun eta ore-mahien pasata ya iriñe. Beak basea itten zon eta hasten zan "taka-taka-taka". Gosarie talokin. Egurdiko bazkarie razionamentun ematen zittuen opiltxo borobil hori batzuk Mexikotik barkutan ekarritako artokin egindako iriñekin. Ordun, arto hori barkutako zeatan, sototan eo ekartzen zoen lekutan mindu eitten zan.
- K: Bai, dana lizunduta.
- I: Bueno, hura ez zeon kristaurik jango zonik! Ordun, egurdin razionamentuko bollo haik bakoitzei berea jaten zonak jan, jaten ez zonak han gelditzen zan.
- K: Bai, beste batek jaten zon.
- I: Ez! Txerri-pertzea juten zien. Txerriri askaan bota eta txerrik ez zuen jaten. Txerrin askaan egoten hittuan naranja-azalak —zeatik naranja-azalak ez due jaten txerrik— eta bollok. Ez zittuen probau´re itten. Eta, pentsa, ordun bazan jendea razionamentuko ogie sobrau zan edo ez galdetzea ordu batak aldea etortzen zienak panaderia. Oseake batzuk hartzen zittuen... Eta gero, atsaldeen, gue amak eunero-eunero-eunero taloz gain, itten zon ogi bat. Zeatik gue etxen nola artoa zeon eta iriñe zeon... Gero kontauko dizkitzut arto hori ta irin hori lortzeko ze ibiltzen zien. Holakotxe ogi bat eitten zon, haundi-haundie, lau librakoa huan...

haundie. Laben kabitzen zana, zeatik labea ez genduken su-labeik. O labe... Ez genduken ogie erretzeko, ez. Ekonomikan, baiño ekonomika haundie ta ederra [hartzen] zan. Ba, me(r)iendau etxen. Etxe barrun. Ez zeon kalera ateatzeik meinda harrekin.

- K: Jo, usaiekin bakarrik'e...

- I: Iñok ez zeuken. Ez, eske ez, ez.

- K: ... etortzen zien "Maria Luisa..." iñez.

- Bai, e? Jesus...!

- I: Eta akordatzen naiz aitte eta morroia edo meindatzen sukalden ai baldin bazien eta gue etxeko atea egoten zan beti zabalik, osea, giltzatu gabe. Ordun, "kris-kras" krisketea sentitzen zuenen hartu ogie eta mahai azpia. Ez zekizun zeñek etorri behar zon...! Bueno, meindatu horrekin eta afaldu atzea taloa. Aurrena batzuri zopea eo porru-patatak edo zerbait, baiño gero talokin edo urdai hirugiharrea edo txoixoa edo zerbait.

12. Gerra osteko ekonomia; errota "klandestinoak"

- **Erref:** BEA-023/012
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Goserik ez zuten pasatu baserrian, baina gerra osteko urteak gogorrak izan ziren, batez ere kaleko jendearentzat. Artoa, garia. Errota "klandestinoak". Lazkaoko errota handira astoarekin joan zeneko kontua.

13. Txerri-hiltzea; umetako kontuak

- **Erref:** BEA-023/013
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Txerri-hiltzea nola eta non egiten zuten. Umetako kontuak. "Aurrek erakusten dik atzea nola dantzau".

14. Euskararen egoera; hika, zuka, berorika

- **Erref:** BEA-023/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hizkuntzaren egoera. Parrokoak euskaldunak izan arren umeei ez zieten euskaraz hitz egiten. Hika, zuka, berorika.

Transkripzioa

- Baiño parrokoa ´re euskaldune, ba, zeakoa...
- Plazentzikoa.
- Plazentzi. Ez, Antzuolakoa.
- A, Antzuolakoa, bai?
- Bai. Aspe. Ta euskera eitten zon zuen alderdikoa, baiño euskera primeran.
- Eta don Pedro ataundarra eta don Pedro Mokoroa tolosarra.
- Tolosarra.
- Baiño nik, esate bateako, gaur pentsatzen hika zen... nola itten gendun hika, zeintzuk itten gendun hika? Ba, gurasok guri hika, guk gurasoi zuka, baiño gure ama eta koiñata —guk izeba bat bizi gendun etxen, aitten arreba bat— haik ean arten hika itten zuen. Guk beorika ez deu ezautu etxen, guk aittona ta amonai “zu”. Eta apaizei nola ez genien euskeraz hitz eitten, ba, ezta ideaik ´e.
- “De usted”.
- Baiño nik Beasaiñen ezautu det beorika.
- Ta praillek ´e danak euskaldunek baldin zien... bat Matximentakoa ´re (Matxinbentakoa) bazan, eta haik gue aittekin beti euskeraz aitzen zien...
- Baiño umekin ez.
- ... baiño gero umekin ta... Jo!

15. Euskararen egoera gerra ostean

- **Erref:** BEA-023/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hizkuntzaren egoera gerra ondorengo urteetan. "Hablar en cristiano". Umeen artean ere, baserrikoei irainak; etab.

Transkripzioa

- K: Eta gaiñea ´re hori baiño okerrago euskeraz ´e igual jutun ziñen denda batea eta kastillanan bat baldin bazeon, “Hablar en cristiano” esaten zizun. Eta, jo, guk kristonak armatzen giñuzten.
- I: Eta Beasainmendiko umek eskolaa eta kalle Santa Mariko erdaldun ume nazkagarrik “Casero burro no vale un duro ni media...”... nola huan?
- K: “Ni una peseta”.
- I: “Casero burro no vale un duro ni una peseta ni medio duro”. Beasainmenditio zetozen, eskolaa zetozen umei.
- K: Gu baserritarrak defenditzen beti.
- I: Onbre, eske ala giñutzean ta!

16. 50 urtekoak nagusi ikusten zituzten umetan

- **Erref:** BEA-023/019

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umeak zirenean, 50 urte zituztenak nagusi ikusten zituzten. Egun, badirudi jendea beranduago nagusitzen dela.

17. Ezagun baten inguruko anekdota

- **Erref:** BEA-023/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ezagun baten inguruko anekdota. Langile amorratua, bikarioari esan ziona.

18. Herriko jendea baserrietara lapurretara

- **Erref:** BEA-023/021
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:38:45. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Natura » Fauna
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Herriko jendea baserrietara joaten zen gereziak, intxaurrak, sagarrak, etab. harrapatzera. Garia ereiten zutenean, lapurtxoriak ibiltzen ziren eta izutzeko egin behar izaten zutena. Gerra garaian moroak egon ziren eskolan; gerra ondorengo urteetan, tropak egon ziren. Txoriak bertan egiten zituzten habiak.

19. Inguruetako txori-klaseak

- **Erref:** BEA-023/023
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Txori klase ugari inguruan. Txepetxa, txantxangorria, buztanikara. Zozoak, beleak. Birigarroa.

20. Txoriak harrapatzeko teknikak

- **Erref:** BEA-023/024
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:46:55. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txoriak harrapatzeko teknika desberdinak.

21. Gerra-ostean kaletarrak baserrira lanera janari truke

- **Erref:** BEA-023/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gose urteak. Baserrietara joan eta lanaren truke janaria lortzen zuten kaletar askok.

22. Baserriko eginkizunak; irratia ekarri zuteneko anekdota

- **Erref:** BEA-023/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Indaba bildu berria. Baserriko eginkizunak: artoa aletu, etab. Irratia etxera ekarri zuteneko anekdota.</p>

23. Amak fraideen arropak garbitzen zituen

- **Erref:** BEA-023/029
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Amaren inguruko kontuak. Lehenengo garbigailuak. Garbitokiak. Fraideen arropak ere garbitzen zituen amak. Garai batean jendearen arteko harremana beste era batekoa.

Olano Segurola, Ixabel | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com